

DESIGN THINKINGAREN ERAGINA AZTERTZEN UNIBERTSITATE IKASLEEN AUTO-ERAGINKORTASUN SORTZAILEAN

Tesiaren egilea: Beñat Flores Puga

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea (MU)

Saila: Komunikazioa

Tesi-zuzendaria: Txema Egaña Osa, Goretti Soroa Martinez eta Aitor Zuberogoitia Espilla

Tesiaren laburpena:

Tesiaren ingelesezko izenburua honako hau da: «Exploring the impact of Design Thinking on Higher Education students' Creative Self-Efficacy».

Egungo hezkuntza-sistemak dituen erronka garrantzitsuenen artean dago ikasleen sormenaren sustapena, gizartearen erronka globalei erantzun sortzaile zein berritzaileak emateko prestatuz. Hori dela eta, doktore-tesi honek auto-eraginkortasun sortzailearen (*creative self-efficacy*) alderdi garrantzitsuenak jorratu ditu, hiru atal desberdinetan banatuta: 1) Teorikoa, 2) Metodologikoa, eta 3) Aplikatua.

Lehenik eta behin, ikerketa honetan sormenari, auto-eraginkortasun sortzaileari eta Design Thinkingari buruzko literaturaren berrikuspena aurkeztuko da, arreta berezia jarritz goi-mailako ikasleen auto-eraginkortasun sortzailearen garapenari begira duen potentzialtasunean (Atal Teorikoa).

Bigarrenik, «Creative Self-Efficacy Inventory» (CSEI) tresna gaztelaniara egokitu eta baliozkotu da (CSEI-S), unibertsitateko ikasleen auto-eraginkortasun sortzailea modu fidagarrian neurtu ahal izateko.

Hirugarrenik, «Ikus-entzunezko Formatu eta Eduki Berriak» esku-hartze programaren diseinua aurkeztu eta berau Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko 4. mailan nola inplementatu zen deskribatu da. Programa hori Design Thinkingaren faseetan oinarrituta diseinatu zen, eta ikasleen auto-eraginkortasun sortzailean eraginik ote duen ebaluatu du tesi honek (Atal Aplikatua).

Azkenik, atal bakoitzeko ekarpen, muga eta etorkizunerako lan-ildoak laburbildu dira.